

ARRASATE / Euskaraz irakurtzea merkeago izango da bihartik aurrera Topaguneari esker

ARRASATE. DV. Euskaraz irakurtzea merkeago izango da bihar hasi eta uztailaren 24ra arte. AEDk, Udal Liburutegiarekin elkarlanean, irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina jarriko du abian euskarazko irakurtzaletasuna bultzatu asmoz. Bihar ospatzen den Liburuaren Eguna aitzakitzat hartuta, euskarazko argitalpenak %25eko deskontuarekin erosi ahal izango dira Elkar eta Eroskiko liburu dendetan eta Portaloiko kioskoan. Euskarazko liburuak oparitzeko ohitura sustatzea du helburu beherapen honek. Topaguneak bultzatutako kanpaina hau Arrasaten eta beste hogeit hamar herritan gauzatuko da datozen hiru hilabeteetan zehar. Liburuak deskontuarekin erosi ahal izateko eskakizun bakarra zera da: udal liburutegiko euskarazko liburu bat irakurri izana. Kulturetako nahiz Santamainako liburutegietako euskarazko libururik irakurtzen duen edonork gutxienez ehuneko 25-eko deskontua eskuratuko du aipatu dendetan. Gainera, AED eta Txatxilipurdi elkarteetako bazkideek beste %25eko deskontua izango dute, hau da, guztira liburuaren salneurrian ehuneko 50eko aurrerapena.

Herriko nahiz kanpotar irakurleek aukera izango dute kanpaina honi etekina ateratzeko: euskarazko liburu bat hautatu, maileguan hartu, irakurri eta, ondoren, fitxa labur bat betetzearen truke deskontu txartela jasoko da. Fitxan galdera sinple batzuk egiten dira: zer da gehien gustatu zaizuna? eta gutxien?; irakurria zenuen idazle honen beste libururik? zein?; piztu al dizu idazle beraren beste bat irakurtzeko asmorik?.

Ehun liburu

Liburuaren aukeraketa errazte aldera Topaguneak ehun liburu gomendagarrienak hautatu ditu. Kanpainaren eskuorria eta webguneak datorren zerrenda hau adinaren arabera sailkatuta dator, haur, gazte eta helduentzako irakurzaletasunak.

Hauen artean, sail berezi bat osatuz, herriko autoreen obrak ageri dira; Diego Martiarturen, Hamairu eta bat; Jon Iñaki Lasaren, Andaluziari ene bilduma; Josemari Velez de Mendizabalen, Bizi izan juat; Jose Felix Diaz de Tuestaren Euskal Herria atzerritarren ahotan; Joxe Aranzabalen Medikuek esan dit minbizia dudala; Juan Ignacio Montianoren Dragoigilea, edo Juan Ramon Garairen Celestino Uriarte.

Irakurzaletasuna

AEDk urteak daramatza euskarazko irakurtzaletasuna bultzatzen Jokin Zaitegi itzulpen sariketa eta gaur emango diren literatur lehiaketan sariekkin. Udal Liburutegiak, bere aldetik, urteak daramatza ildo horretan lan egiten, eta euskaraz ekoizten den argitalpen eta ikusentzuteko guztiak erosten ditu. Egun, Udal Liburutegiko fondoen laurdena euskaraz idatzia da.